

ZER DIRA KANALAK?

Kanalen barnean, hiru atal desberdin bereizten dira: komunikazio-kanalak, banaketa-kanalak eta salmenta-kanalak. Kasu guztiak bezeroarekiko harreman-puntuak dira. Bost dira kanal bat osatzen duten faseak: pertzepzioa, ebaluazioa, erosketa, entrega eta salmenta.

Bi kanal mota desberdintzen dira. Alde batetik kanal zuzenak, hau da, bitartekariak saihesten dituztenak. Komertzialen talde batek osatutako salmenta indarra edota Internet bidezko online salmenta denda bat, adibidez. Eta beste aldetik, zeharkako kanalak, hau da, dendak (elkartuak ala propioak) eta dendei handizkako salmenta egiten dieten handizkariak.

Horretaz aparte, kanalen beste sailkapena ere badago. Alde batetik kanal propioak, Komertzialen talde batek osatutako salmenta indarra edota Internet bidezko online salmenta denda bat. Eta beste aldetik, kanal elkartuak, hau da, elkartutako dendak eta handizkariak.

GURE KOMUNIKAZIO KANALAK:

- Web orria
- Sare sozialak, hala nola, Facebook, Instagram eta YouTube
- Harreman pertsonala
- Iragarkiak, Halabedi Irratiak eskaintzen dizkigunak

GURE BANAKETA ETA SALMENTA KANALAK:

Gure produktuak saltzeko erabiltzen ditugu, lehenik, online bidezko web orri bat, non DHL bitartekaria erabiltzen dugu gure produktuak banatzeko. Bigarrenik, antolatzen ditugun postuetan eta hirugarrenik, gure xedean. Zerbitzuak, web orriaren kasua alderatuz, zuzenak dira, zuzenean bezeroei eskaintzen dizkiegulako.